

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 9/2018 Foru Dekretua, otsailaren 20koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoaren berezko muga naturalak eta beste muga batzuk dituzten zonetan nekazaritza ustiatagientzako laguntzen oinarri arauen aldaketa, maiatzaren 10eko 37/2016 Foru Dekretuaren bidez onartu zirenak, eta onartzea laguntza lerro horren 2018ko deialdia

Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 10eko 37/2016 Foru Aginduaren bidez laguntzen oinarri arauak onartu ziren, nekazariei kalte-ordain gisako laguntzak emateko, nekazaritza ekoizpenak mendialdeetan edo mendialdeez bestaldeko gune behartsuetan dakartzan zailtasunen ondorioz sortzen diren kostu gehigarriengatik eta sarrera galerengatik, 1305/2013 Erregelamenduan ezarritako mugen barruan. Laguntza horiek M13.1 "Mendialdeko eskualdeetako konpentsaziozko ordainketak" eta M13.2 "Natura muga nabarmenak dituzten guneei edo mendialdeez bestaldeko gune behartsuei zuzendutako konpentsazio ordainketak" gisa daude identifikatuta Euskal Autonomia erkidegoko landa garapenerako 2015-2020 programaren esparruan. Halaber, laguntza lerro horien 2016ko deialdia egin zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 14ko 13/2017 Foru Dekretuaren bidez, aldatu egiten dira laguntza horien oinarri arauetako batzuk eta onartu 2017rako haien deialdia.

2017ko maiatzaren 30ean, Europako Batzordeak, C(2017) 3859 Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia erkidegoko landa garapenerako 2015-2020 programaren bigarren aldaketa onartu zuen. Aldaketa horrek zati batean laguntza lerro horri eragiten dio eta, beraz, ezinbestekoa da haien oinarri arauak aldaketa horietara egokitzea.

Bestalde, kontuan izanik laguntza lerro horiek izapidetzeko Arabako Foru Aldundiko 2018ko gastu aurrekontuan kreditu nahikoa dagoela, beharrezko egiten da urte horretarako deialdia onartzea.

Aginduzko txostenak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea ondorengo aldaketak egitea Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 10eko 37/2016 Foru Dekretuaren eranskinean ezarrita dauden eta Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 14ko 13/2017 Foru dekretuak aldatu zituen M13.1 "Mendialdeko eskualdeetako konpentsaziozko ordainketak" eta M13.2 "Natura muga nabarmenak dituzten guneei edo mendialdeez bestaldeko gune behartsuei zuzendutako konpentsazio ordainketak" neurrietara zuzendutako dirulaguntzen oinarri arauetan.

1.1 Aldatzea 3.2 artikulua, natura muga nabarmenak dituzten guneak edo mendialdeaz bestaldeko gune behartsuak zehazten dituena. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

3.2. Natura muga nabarmenak dituzten guneak edo mendialdeaz bestaldeko gune behartsuak:

Dulantzi, Armiñón, Arratzua-Ubarrundia, Berantevilla, Burgelu, Lantarón, Erriberagoitia, Erriberabeitia, Agurain, Gasteiz eta Zanbrana.

1.2 4. artikulua 1.a , 1.b eta 1.c idatz zatiak, onuradun diren pertsona fisikoen betebeharrak zehazten dituztenak, kentzea eta idatz zati horiek berriro zenbakitzea. Hona hemen aurrerantzean 1. paragrafo horrek izango duen testua:

4.1. Pertsona fisikoak:

a) Nekazaria izatea titulu nagusi gisa (TNG). Horren ondorioetarako, beharrezkoa izango da PFEZaren aitortzea aurkeztuta izatea.

b) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla frogatzea.

c) Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak izapidetutako zehapen edo itzulketa prozedura batean ez egotea.

d) Ez ezarri izana administrazio zehapenik ez zehapen penalik sexua dela-eta diskriminazioa eragin izanagatik, eta ez ezarri izana debeku hau emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legearen ondorioz (4/2005 Legea, otsailaren 18koa).

e) Eskaera bakarra egitea eta horretan gutxienez ordainketarako onargarriak diren bi hektarea jasotzea.

f) Inolako erretiro pentsiorik ez jasotzea, nekazaritzan jarduteagatik sortu ez den ezintasun iraunkor partzialarena edo osoarena izan ezik.

1.3 4. artikulua 2.a idatz zatia eta 2.c eta 2.d idatz zatiak, onuradun diren pertsona juridikoen eta ustiategi elkartuen betebeharrak zehazten dituztenak, aldatzea eta kentzea, hurrenez hurren, eta idatz zati horiek berriro zenbakitzea. Hona hemen aurrerantzean 2. paragrafo horrek izango duen testua:

4.2. Pertsona juridikoak edo ustiategi elkartuak:

a) Eskatzaileak aurreko 4.1 artikulua b), c), d), e) eta f) idatz zatiek pertsona fisikoei ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

Sozietate zibilak, titulartasun partekatuak eta ondasun erkidegoak izanez gero, kide guztiek 4.1.b. artikuluan ezarritako baldintza bete beharko dute.

Gainera, gutxienez sozietateren kapitalaren edo banaketa kuotaren ehuneko 50 duten kideen ehuneko 50ek gutxienez izan beharko dute nekazariaren izaera titulu nagusi gisa.

Edonola ere, bazkideen artean tituluak eskualdatuz gero, aurretik adierazitako baldintza bermatuko dela aurrekusi beharko da estatutuetan edo bazkideen batzar orokorrean hartutako erabakiaren bidez.

Titulartasun partekatuko erakundeen kasuan, eta urriaren 4ko 35/2011 Legeak, Nekazaritza ustiategiaren titulartasun partekatuari buruzkoak, 5. eta 11. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, kideetako batek ez badauka nekazaritzako etekin egotzita azken bi ekitaldietako PFEZaren aitortzearen, ulertuko da nagusiki nekazaria dela, baldin eta beste kideak betekizun hori betetzen badu.

Beste pertsona juridiko batzuen partaidetza duten pertsona juridikoei dagokienez, sozietatearen osatura adierazi behar dute, kide diren pertsona fisiko guztiak identifikatuta; horrez gain, horietako bakoitzak ustiategi onuradunaren kapitalean zein ehuneko daukan adierazi behar dute.

d) Nortasun juridikorik gabeko sozietateek ezin dute horrelako laguntzarik jaso; salbuespena: jaraunspen erkidegoek jaso dezakete, baldin eta sei urtean gutxienez indibiso mantentzeko ituna egin bada. Sozietate zibilak direnean, eskritura publiko bihurtutako agirien bidez osatuta egongo dira. Halaber, ezin dute honelako laguntzarik jaso makineria erabiltzeko kooperatibek (MEK).

e) Kooperatibek Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Erregistroan izena emanda egon beharko dute.

1.4. 5. artikulua 1. paragrafoa, nekazaritza ustiategien betebeharrak zehazten dituen, kentzea eta gainerako paragrafoak berriro zenbakitzea. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

5. artikulua. Nekazaritza ustiategien betebeharrak

5.1. Pertsona fisiko titularra edo, pertsona juridikoen kasuan, bazkideak, bi ustiategitan edo gehiagotan inskribatuta egonez gero, dela bakarka, dela elkartutako ustiategi bateko bazkide moduan, laguntza hau ustiategi bakar batean konputatuko da, eta bazkide edo kiderik gehien duen ustiategi elkartua lehenetsiko da.

5.2. Foru dekretu honen ondorioetarako, urriaren 4ko 35/2011 Legean xedatutakoarekin bat etorritik, sozietate zibilek duten tratamendua izango dute titulartasun konpartitua duten nekazaritzako ustiategiek, baina ez dute bete behar eskritura publiko bidez eratuta egoteko betekizuna.

1.5. Aldatzea 11. artikulua 1., 2. eta 3. paragrafoak, laguntzaren kalkulua arautzen dutenak. Azalera. Zenbatekoak. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

11.1. Laguntzak urtero emango dira, urteko eskaera bakarrean adierazitako edo kontrolen ondoren zehaztutako ustiategiaren nekazaritza azalaren arabera. Azalera hori kokaturik egongo da mendialdeetan edo mendialdeez bestaldeko guneharrietan.

11.2. Diruz lagundu daitekeen gehieneko azalera 30 hektarea izango da; horiei honako ehuneko hauek aplikatuko zaizkie:

- Lehenengo 15 hektareei edo azalera txikiagoei laguntzaren ehuneko 100 ordainduko zaie.
- Hurrengo 10 hektareei laguntzaren ehuneko 60 ordainduko zaie.
- Hurrengo 5 hektareei laguntzaren ehuneko 20 ordainduko zaie.
- 30 hektarea baino gehiagoko azalerek ez dute laguntzarako eskubiderik sortuko.

Tarte bakoitzean, kalkulua egingo da zona behartsu bakoitzeko azalera kontuan hartuz, onuradunarentzat aldekoena den egoera (mendialdeko zonari laguntza) abiapuntu dela.

Ustiategi elkartuetan ordainketak jardueran nagusi gisa nekazaritza duten bazkideak ugaritzen diren neurrian hasiko dira. Gehienez, bi TNG ustiategi elkartuko eta, gehienez, 60 hektarea ustiategiko.

Ondorio orotarako, lehenengo eta behin kontuan izango dira eskaera bakarra aurkezten den lurralde historikoan edo autonomia erkidegoan dauden azalera.

11.3. Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatu da kontuan hartuz hektareako saria 297 edo 214 euro izango dela, hurrenez hurren, azalera mendialdeetan edo beste muga natural batzuk dituzten zonetan izan.

11.4. Sozietate zibilen, titulartasun partekatuen eta ondasun erkidegoen gisako ustiategi elkartuei edo bestelako pertsona juridikoei dagokienez, gerta daiteke bazkide edo kide guztiak ez betetzea 4.1.a artikuluan TNGren inguruan ezarritako baldintzak; halakoetan, laguntza murriztuko da baldintzak betetzen ez dituztenen partaidetzaren proportzio baliokidean, behin pertsona juridikoei begira 4.2.b artikuluan ezarritako ehuneko 50eko betekizunak egiaztatu ondoren.

1.6. 12. artikulua ("Laguntza eskaerak") 1. paragrafoa aldatzea eta 6. paragrafoa kentzea. Hona hemen aurrerantzean artikulua horrek izango duen testua:

12. artikulua. Laguntza eskaerak

12.1. Urtero laguntzen deialdia onartuko da; haren barruan honakoak jasoko dira:

- Deitutako laguntza lerroak.
- Deialdia ebazteko erreserbatzen diren kredituak.
- Eskaerak aurkezteko epea eta tokia.

12.2. Laguntza eskaerak eskaera bakarrean jasoko dira, horretarako finkatutako datekin bat etorritik. Eskaera epea automatikoki luzatu ahal izango da eskaera bakarra egiteko epea luzatzen den heinean; era berean, eskaerekin batera 13. artikuluan zerrendatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

12.3. Laguntza eskaerak edo bestelako adierazpenak guztiz edo zatiz ken daitezke idatziz edozein momentutan. Agintaritza eskudunak onuradunari ez betetzeak daudela jakinarazi badio edo lurtean bertan kontrol bat egiteko asmoa duela ohartarazi badio edo lurtean bertan egindako kontrol batek ez betetzeren bat agerian jarri badu, ez da onartuko ez betetzeak ukitutako dokumentu horien jakinarazpenak kentzea.

12.4. Onuradunak aurkeztutako laguntza eskaerak edota bestelako ziurtagiriak edozein momentutan zuzendu eta aldatu ahal izango dira ordainketaren aurretik, baldin eta agintaritza eskudunak kasu zehatzaren ebaluazio orokorraren gainean onartutako ageriko akatsik badago eta onuradunak fede onez jardun badu.

12.5. Laguntza eskaera bakoitzean, datuak zuzen betetzeaz gain, eskatzailearen adierazpen bat aurkeztuko da; adierazpen horretan honakoak jasoko dira:

– Laguntza emateko baldintzak ezagutzea.

– Hala badagokio, ea eskatutako neurriarekin ezin batera daitekeen bestelako laguntzaren baten hartzailea den.

1.7. I. Eranskinetik (definizioak) kentzea “ustiategi koefizientea”ri buruzkoa

1.8. II. Eranskina (batez besteko kotak, mendialdeetako, natura muga nabarmenak dituzten bestelako guneetako eta mendikoak ez diren beste gune batzuetako konpentsaziozko kalte ordainetan ustiategien koefizientea zehazteko puntuaziorako erabili behar direnak) kentzea.

Bigarrena. Onartzea, 2018. urterako, dirulaguntza deialdia, honako ezaugarri hauekin:

– Laguntza lerroak:

– Mendialdeetako konpentsaziozko ordainketak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Landa Garapenerako 2015-2020ko Programaren 13.1. N neurria).

– Natura muga nabarmenak dituzten guneei edo mendialdeez bestaldeko gune behartsuei zuzendutako konpentsaziozko ordainketak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Landa Garapenerako 2015-2020ko Programaren 13.2. N neurria).

– Epea eta tokia: Laguntza eskaerak eskaera bakarra aurkezteko ezarri den epean aurkeztuko dira, alegia, 2018ko otsailaren 1etik apirilaren 30era arte, biak barne. Eskaera Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren nekazaritzako eskualde bulegoetako edozeinetan aurkeztuko da.

Ordainketa bakarraren eskaerak aurkezteko epe hori luzatuz gero, berez eta besterik gabe beste horrenbeste luzatuko da laguntza lerro honetarako eskaerak aurkezteko epea.

– Kreditu erreserba. 1.450.000,00 euro, “Gune behartsuak konpentsatzeko kalte-ordainak” izeneko 40.1.01.42.01.479.00.04 partidaren kontura, Arabako Foru Aldundiak 2018ko ekitaldirako indarrean duen gastu aurrekontutik.

Esandako kredituaren hasierako zenbatekoa ehuneko ehun handitu ahal izango da, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Dirulaguntzen Lege Orokorraren erregelamenduak 58. artikuluan ezartzen dituen mugen barruan, eta bai ere aurrekontu partidan edozein arrazoirengatik gerta litekeen kreditu gehitzearen bidez.

Hirugarrena. Adieraztea laguntza hauek LGNEFek finantzatzen dituela ehuneko 75ean, Euskal Herriko Landa Garapenerako 2015-2020 Planaren babesean.

Laugarrena. Nekazaritzako foru diputatuari ahalmena ematea honako foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko eta, zehazki, honako oinarri

arautzaile hauen kontra nahiz urteko deialdien ebazpenaren kontra jartzen diren berraztertze errekurtso guztiak ebazteko.

Bosgarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko otsailaren 20a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE